

Nagore Legarreta, argazkilaria

“Burua sutan dabilen lapikoa da,
eta sortzaile ibilbideari ekin nion horrexegatik, lapiko hori dantzan
mantentzen zuen suari egurra eman nahi niolako”

Egilea: **Nagore Legarreta Alcelay.**



Argazkia: Manu Barreiro.

dute. Irudia hainbat prozesu kimiko erabilia errebelatzen da.

Ikastaro hura egin nuenetik ontziekin ibili naiz atzera eta aurrera. Hasieran argazki asko atera nituen kamara probatzeko eta gero gai jakinen inguruan hasi nintzen, argazki bildumak osatu asmotan. Hor-tik sortu ziren "Azoka", "Hondartza", "Monumentuak", "Itsasertza" eta "Blokeak" izeneko bildumak.




SAN JOANETAKO ARGIAK KARKABAN

Argazkia Pagoa garagardo gorriarentzat egin-dako etiketa da. Garagardo ekoizleek ekimena jarri zuten martxan herriko sortzaileekin elkar-lana egiteko, eta haien irudiak erabiltzeko etiketetan. Nik irudi bat sortu nahi nuen, udaberritik udara doan argiaren eta biziaren igoera islatzen zuena. San Joanetan, ekaina bukaerako 21.00ak inguruan, bada argi izpi berezi bat. Eguzkia Atsegindegi atzetik sartzen da eta momentu horretan eguzki izpiek Hernaniko alde zahar osoa zeharkatzen dute Txiliko arkuetaraino. Urteko garai horretan bakarrik gertatzen da. Txikitatik dut gogoan argi hori, eta nola gorputza dantzarako eta parrandarako prestatzen hasten den.

2011ko udaberrian, Banizu Nizuke Bilboko argitaletxea nirekin jarri zen harremanetan. Egin nituen argazkiak liburu batean argitaratzeko egokiak zirela, eta "EDIPOTOA" liburua argitaratzeko proposatu zidaten. 2011ko abendurako kalean zen eta argitaratu ziren 200 aleak agortu zirenez, 2014an bigarren edizioa argitaratu genuen. Argazki bilduma bakoitzeko idazle bati eskatu zitzaion hainbat hitz



2017an Indiarra eginiko argazki bidaian Manu Barreirok Nagoreari eginiko argazkia.





idazteko. Horrela liburuan argazkiekin batera, Gorka Setien, Haizea Arregi, Amaia Lainon, Juanbau Erauskin eta Mikel Peruarenaren testuak irakur daitezke.

Lana argitaratu ondoren erronka berri bati lotu nintzaion. Ordura arte egindako lanak ontziak probatzeko egin nituela pentsatu nuen eta argazki haiek ontzietan buruz hitz egiten zutelako. Ontzien teknika gaitzera zuten argazki lan bat egin nahi nuen, argazkiek bere indarra izan zezatela nahi nuen, erabilitako teknika zena zelakoa izanda. Asmo horretatik sortu zen HYSTERON lana, 2012 - 2016 urteen artean gauzatu nuena. Emakume gorputz zatikatuak irudikatzen dira bertan.

Zargazkiak egiteko bost kiloko hegaluze ontziak erabili nituen lau zulo eginda, eta horrela lau irudiz sortutako irudi konposatuak lortu nituen. Lehen aldiz Oñatiko Arg! Jaialdian aurkeztu zen erakusketa eta ondoren Andoaingo Argazkialdia jaialdian. Londreseko Saatchi Galeryk ere aukeratu zuen lana galerian bertan aurkezteko, eta 2016ko Photoespañolako off Jaialdiaren atalean ere erakutsi zen. 2016ko urrian Koldo Mitxelena erakutsi zuen lana,

Koldo Mitxelena berak eta Donostia 2016ko Energia Olatuak ekimenak lagunduta.

Erakusketa emanaldi ere bihurtu genuen, izan ere HYSTERON proiektuaren atzean zeuden ideiak elkarbanatu nahi izan nituen beste diziplinako hainbat sortzaileekin. Konplizitate estetiko eta ideologikoa nuen hainbat sortzaile egin nion gonbitea HYSTERONen inguruko emanaldi bat osatzeko: Txaro Untzilla dantzariari; Danele Sarriugarte eta Gorka Setien idazleei; eta Mariano Hurtado, Beñat Iturrioz eta Aida Torres musikariei. Biteri kultur etxean urte betez inprobisatzen aritu ondoren emanaldia Koldo Mitxelena aurkeztu genuen eta baita emanaldiko edukiak biltzen zituen ontzia ere. Hernanin ere egin dugu HYSTERON emanaldia aurtan, eta herriaren harrera beroa izan zen, aretoa goraino bete baitzen.

Normalean proiektu bat baino gehiagorekin egiten dut lanaldi berean, eta HYSTERON gauzatzen ari nintzen urte haietan Indiarra argazki bidaiak antolatzen hasi nintzen Aritz Arrondorekin. Bidaiak haiek kolore ikertzeko aukera polita izan zitezkeela pen-



HYSTERON. Argazkia: Hysteron 8

HYSTERON emakume gorputz zatikatuak iruditzen dituen argazki lana da. 12 argazkik osatzen dute bilduma eta Hernaniko Iparragirre sagardotegian burutu ziren lagun artean.

Emakumeen arteko harremanen inguruko gogoeta egin nahi izanzen lan horrekin: nolako harremanak sortzen dira berdin kondizionatu, gutxitutako kolektiboetan: elkartasunezkoak ala lehiakozkoak? Tentsio hori islatu nahi nuen argazkitan.

Argazkiak bost kiloko atun latekin egindako kamarekin egin ziren, lau zulodunak, horrela irudi konposatuekin jolasteko aukera izan nuen.



SUZKO IRUDIAK. Argazkia: Ahuntz atokomiak.

Indiara egindako bidaietan, pospolo kaxarekin egindako lehen irudietako bat da ahuntzen irudi ero hau. Delhin atera nuen Tibetarren auzoan dagoen zelai batzuetan. Argazki honekin ulertu nuen pospolo kaxak argiaren intentsitatea eta kualitatea jasotzeko balio zuela, apenas enfokatzen zuelako ezer. Kamarari jostorrazarekin egindako zuloa handiegia zen irudi definituak sortzeko. Pospolo kaxaren “akats” hori erabiltzea erabaki nuen, eta horrela lana argia eta kolorea ikertzeko bidea bihurtu zen.



IBAIA EZ DA TOKI BAT. Argazkia: Urumea, ermita.

Aita Aranon jaio zen, Ama Hernanin, ni tar-tean bizi naiz Ereñotzun... Urumea ibaiak marrazten duen bailaran. Bailara honetako irudiak etortzen zaizkit burura, etxea eta jatorriaz pentsatzen dudak bakoitzean, bai hemen eta bai munduaren bestaldean: eskailuak, hezetasuna, erreka bera lainoen fabrika dela konturatzea, udarako bainu freskagarriak, sagarrondoak eta gainerako zuhaitzak, huntza, basurdeak, azkonarrak, gainerako biztanleak... baita gizakiek utzitako markak ere, zentral hidroelektrikoak, zubiak, fabrikak, kanalak, errepideak, pistak, etxeak, sagardoa, festak... Barruan sartuta ditugun irudiak dira, gure izaera moldatzen dutenak, txikitan entzuten genituen kondairak bezala: birramona Urumea isurtzen den errekatxo bateko putzuan, lamizuloan, elkartzen omen zen lamiakin eta hortzekin harra-patzen omen zituen amurrainak. Urumea ibaia ez da toki bat, ez da ubide bat, ez da orain hemen eta gero han jarri daitekeen ur kanal bat, Urumea ibaia bizirik dagoen izakia da, orain zabaldu eta gero uzkurto egiten dena, gure birrikak bezala.

tsatu nuen, eta pospolo kutxarekin egindako kamara esteno-peikoa eraiki nuen, kolorezko negatiboa erabilita. Hasi nintzenean ez nintzen erabat kontziente izan baina erlijio hinduistan, beste askotan bezala, suak sekulako garrantzia du, eta pospolo ka-xa erabili izanak erabateko zentzua eman dio lanari. Lan hori aurtengo udan txukundu eta antolatuko dut, eta udazkenean Gran Canaria Photon aurkezteko aukeratu dute.

Urumeari buruzko lana ere jarri nuen martxan 2016an, bertan Ibaia ez da toki izenburuarekin. Kristina enea Fundazioak deialdi bat egin zien hainbat sortzaileei Urumea ibaiaren inguru bere ikuspuntua plazara zezaten; ibaia sortzaile begiz ikertzera gertura zitezten. Azken urteetan munduan barrena bueltaka ibili ondoren, pentsatu nuen etxe ondoan nuena erronka polita izan zitekeela, Urumearen inguruko argazki lan bat egitea, alegia. Tripodeari berunak jarri, aitaren arrantzarako katiuskak hartu eta errekan sartu nintzen ontziekin, argia sartzeko zuloa uretatik zentimetro gutxitara jarritz. Buruan nuen galdera zen eta oraindik izaten jarraitzen du: zer da Urumeak ikusten duena?

Ibilbide ez da beti erraza, bizimodua ekonomikoki bideragarria izatea ez da erraza, norbere lana ikustera ematea ez da erraza, eta are gutxiago estabilitatea lortzea. Horrelakotan norbera izaten da norbere lanaren eta buruaren motorra. Inor gutxi etortzen da ate joka. Baina pentsatzen jarrita, bizi dugun garaio-tan nori etortzen zaizkio aukerak ate joka?